

# Ondorioak & erronkak

## LURRALDEA & HIZKUNTZA HIZKUNTZA & LURRALDEA

**I. JARDUNALDIAK**

DONOSTIAN  
2014KO URTARRILAREN 16 ETA 17AN

ANTOLATZAILEAK



UDALERRI  
EUSKALPUNEN  
MANKOMUNITATEA



EUSKALAN HIZKUNTZA ERABILTZEAREN  
KONTSEILUA



uea  
Unibertsitatea

BABESLEA



Universidad  
del País Vasco Euskal Herriko  
Unibertsitatea



## Lehenengoa

### ONDORIOA

Arnasguneak ez dira herri euskaldunak soilik, baina arnasguneen multzoan oso azpimultzo garrantzitsua dira, euskararen erabileraz eta hegemoniaz betetzen dituzten baldintza horiez gain, euskararen transmisioa edo sozializazioa modu bete-betean egiten dutelako, horrek kualitatiboki duen garrantziarekin

### ERRONKA

Politika publiko guztietan hizkuntzaren zeharlerrotasuna kontuan hartzeko eskatzen diegu Administrazio guztiei

## Bigarrena

### ONDORIOA

Lurralde-antolakuntza eta hirigintza ez dira neutroak eta eragin zuzena dute berezko hizkuntzan. Haien eragina ez da inoiz kontuan hartu Euskal Herrian: lurralde-antolakuntzako araubideak ez dio arretarik jarri

### ERRONKA

Eragin hori aztertzea, alde kuantitatibotik eta alde kualitatibotik

#### **2.1- Azterketa kuantitatiboa (zenbat):**

Ikerketa zehatz eta objektibo bat egitea, datuen bidez frogatzeko hirigintza-hazkundearen (etxebizitza berrien) eta euskararen galeraren arteko harremana

#### **2.2- Azterketa kualitatiboa (nola):**

Ikerketa bat egitea aztertzeko Euskal Herriko hirigintza-eredu(ar)en (etxebizitza-poligonoak, suburbanizazioa, zonifikazioa, merkataritza-gune handiak, azpiegiturak) eta euskararen galeraren arteko harremana

Euskal Herriko lurralde-antolakuntzaren eta hirigintzaren alorretatik konturatu behar dira ezin dutela kultura-ondareaz eta tokiko identitateaz ganoraz hitz egin euskara (eta euskal hiztunen komunitatea) kontuan hartu gabe



## Hirugarrena

### ONDORIOA

Europako beste herrialde batzuetan aspalditik daude kezkatuta gai honekin (hirigintzaren eta hizkuntzaren arteko harremanarekin)

### ERRONKA

Beste herrialde horiekin harremana lantzea, eredu teoriko eta praktikoa eragingarrien bila

## Laugarrena

### ONDORIOA

Egungo ordenamendu juridikoak ez dio beharrezko arreta jarri izan hizkuntza eta lurraldearen arteko harremanari. Batzuetan, gainera, aurrerapausuak eman nahi izan direnean (UEMA), auzitegiek oztopo juridikoak jarri dituzte.

### ERRONKA

- Hizkuntza-politika territorializatzea, alegia, lurraldetasun-printzipioari begira jartzea
- Gaia Euskal Herriko politikaren agendan sartzea, gutxienez EAEko lurralde-antolakuntzako tresnetan (Lurraldea Antolatzeo Gidalerroetan eta Lurralde Plan Partzialetan, bereziki) kontuan har dadin

## Bosgarrena

### ONDORIOA

Egungo paradigmek mugak dituzte euskal komunitatea osorik babesteko eta indarberritzeko

### ERRONKA

Hizkuntza babesteko paradigma berrien bila, ingurumenaren alorrean baliagarriak izan diren tresnak eta kontzeptuak (iraunkortasuna) aztertu behar dira, eta, ahal dela, baliatu



## Seigarrena

### ONDORIOA

---

Gaia sozializatu edo gizarteratu behar da. Jendea kontzientziatu eta jendearekin landu. Arriskuez ohartaraziz, baina baita aukerez eta indargune posibleez ere

### ERRONKA

---

Hizkuntza babesteko paradigma berrien bila, ingurumenaren alorrean baliagarriak izan diren tresnak eta kontzeptuak (iraunkortasuna) aztertu behar dira, eta, ahal dela, baliatu

## Azken erronka eta konpromisoa

Jardunaldiotako antolakuntzak eta batzorde akademikoak konpromisoa hartzen dugu ELE (Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa) izeneko tresna definitzeko, eta bigarren jardunaldi batzuetan aurkezteko

---

***Donostian, 2014ko urtarrilaren 17an***